INDEUS, Industriaren Euskal Plataformaren Idazkaritza Teknikoko lanak eta SPRI eta bere taldeko kide diren sozietateen Euskararen Plan Estrategikoa 2019-2023 koordinatu eta dinamizatzeko lanak kontratatzeko baldintza teknikoen plegua. 2021027 espedientea.

1.- KONTRATUKO DEN LANAREN XEDEA

Plegu honen xedea da INDEUS, Industriaren Euskal Plataformaren idazkaritza teknikoa kontratatzeko eta SPRI eta bere taldeko kide diren sozietateen Euskararen Plan Estrategikoa 2019-2023 koordinatu eta dinamizatzeko lanak kontratatzeko baldintza teknikoak finkatzea.

2.- PROIEKTUAREN HELBURU NAGUSIAK

2.1. INDEUS Industriaren Euskal Plataformaren Idazkaritza Teknikoko lanak: 2018an SPRIk abiarazi zuen egitasmoa da, EAEko Industria ehunean euskararen erabilpena sustatu eta indartzea helburu duena. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Energiaren Euskal Erakundea eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta 25 enpresa industrial eta elkarte dira SPRIren bidelagun.

Enpresaren kudeaketa euskaraz egiteko, euskara lan hizkuntza izateko edota euskarari presentzia ematen hasteko prozesuetan sortzen diren zailtasunak, oztopoak eta premiak identifikatzea eta arazoei irtenbide bat aurkitzeko ahaleginak egitea da INDEUSen funtzioa. Eta funtzio hori betetzeko, hiru lantaldetan egituratu dira partaideak:

INGURU DIGITALA – Lantalde honek hartzen duen esparrua oso zabala bada ere, arlo batzuk zehaztu dira, lantalde honetan jorratzeko: enpresei zuzendutako laguntza programetan euskara baloratzea, prestakuntza jardunak, hiztegi propioak eta glosarioak, zibersegurtasuna, software librea, kudeaketa sistemak eta gune digitala.

EUSKARAZKO PRODUKTUAK – Hizkuntzaren kanpo eta barruko paisaia enpresetan, enpresek erabiltzen dituzten erremintak identifikatu (euskeraz dauden ala ez aztertu), erreminta horiek egiten dituzten enpresak identifikatu, diru-laguntza programak garatu.

ATARIKO LANTALDEA – Euskara gutxi erabiltzen duten enpresentzako gunea da hirugarren lantalde hau, euskara erabiltzeko dituzten zaitasunak identifikatzeko eta eskura izan ditzaketen laguntzen berri emateko; baita ekimeneko gainerako lantaldeetako enpresen jardun egokiak ezagutzeko aukera izateko ere.

Lantaldeekin batera INDEUSek badu BATZORDE ERAGILEA ere, erakunde publikoek osatzen dutena eta INDEUSen koordinazio orokorra eta ildo estrategikoak erabakitzea eginkizun nagusitzat duena.

Kontratuaren xedea lehen puntuan aipatutakoa izanik, hauek dira **helburu nagusiak**:

2.1.1. Enpresen beharrak identifikatzea. Euskararen kudeaketan aurreratuta dauden enpresek dituzten beharrak eta zailtasunak identifikatzea; behar eta zailtasun horiei erantzuna emateko bideak aztertzea.

2.1.2 Produktuak euskaraz sortzea. Enpresen kudeaketarako sortzen diren tresnak eta horien ekoizleak identifikatu, eurekin harremanetan jarri eta tresnok euskaraz sortu/izateko aukerak aztertu.

2.1.3 Industria-ehuna euskarara erakartzea. Euskarak presentziarik ez duen enpresa industrial handiak ekimenera erakartzea, euskara txertatuta duten enpresen ereduaren laguntzarekin.

2.2. SPRI eta bere taldeko Sozietateen EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2019-2023 koordinatu eta dinamizatu: "SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia", "Sprilur, S.A.", "Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa, IKEKS, S.A.", "Basque Trade & Investment, S.A.", "Parque Teconológico Teknologi Elkartea, S.A.", "Parque Tecnológico De Álava-Arabako Teknologi Elkartea, S.A.", "Parque Científico Y Tecnológico De Gipuzkoa –Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, S.A." eta "Centro de Empresas de Innovación de Álava-Arabako Eraberrikuntza Industrialdea, S.A." ***Euskararen Plan Estrategikoa*** landu eta abiarazi dute euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza bihurtzeko urratsak emateko helburuarekin.

SPRI Taldeko Euskararen Plan Estrategikoak diagnostiko orokorrarekin batera, sozietate bakoitzaren diagnostikoa egiten du eta sozietate bakoitzaren egoerari egokitutako ekintza plana proposatzen du.

Kontratuaren xedea kontuan hartuz, hauek dira **helburu nagusiak**:

2.2.1. Ekintza Plana: Euskararen Plan Estrategikoan ezarritako ekintza plan orokorra eta sozietate bakoitzerako ezarritako ekintza planak abiaraztea, bidean sor daitezkeen oztopoak identifikatu eta konponbideak bilatuz.

2.2.2. Dinamizazioa: Ekintza Planak aurrera ateratzeko beharrezkoak diren baliabideak erabiltzea, parte hartzea sustatzeko.

2.2.3. Berrikusketak eta eguneraketak: Aldiro-aldiro sozietate bakoitzaren egoeraren azterketa egin eta ekintza plana egoera horietara egokitu.

3.- EGIN BEHARREKO LANEN EDUKIA

3.1. INDEUS Industriaren Euskal Plataforma:

3.1.1 Talde eragilearen kudeaketa eta aholkularitza. SPRIk, HPSk, EEEk eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek osatzen duten talde eragilearen jarduna kudeatu eta koordinatuko du enpresa esleipendunak, prozesuaren fase bakoitzean sortuko den dokumentazioa eta materiala landuz, talde eragilearen esku jarriz eta lan-bilerak antolatuz eta kudeatuz, betiere SPRIko INDEUS proiektuaren arduradunarekin koordinazioan.

3.1.2. Lantaldeen koordinazioa eta kide berriak aurkitzea. 2.puntuan aipatutako hiru lantaldeen (*Inguru Digitala, Euskarazko Produktuak eta Atarikoa*) bilerak prestatzea, deialdiak egitea, partehartzaileak koordinatzea eta bileren aktak egitea. Honekin batera, INDEUSeko kide izan daitezkeen enpresak identifikatzen laguntzea.

3.1.3. Jardunaldi, mintegi eta topaketen antolaketa/koordinazioa. INDEUS egitasmoarentzat egoki jotzen diren jardunaldiak identifikatzea eta antolatzea; beste batzuk antolatutako ekitaldiak badira, INDEUSen zabaltzea edota egitasmoaren parte hartzea koordinatzea.

3.1.4. INDEUS web gunearen edukien eguneraketa. INDEUSen SPRIko arduradunarekin koordinazioan, INDEUS web gunearen atal publikoa eta pribatua eguneratzea, eta atal pribatuko Foroa dinamizatzea, kideen parte hartzea bultzatzeko ekimenak asmatuz.

3.1.5. INDEUS aktibatzeko proposamen berriak. INDEUS abiatzearekin batera COVID19ak sortutako pandemia egoera sortu eta enpresa zein erakundeen lehentasunak aldatu egin dira, hizkuntzen kudeaketak garrantzia galduz. INDEUSek ekimen berriak eta berritzaileak behar ditu proiektuan dauden enpresak aktibatzeko, enpresa berriak erakartzeko, azken baten ekimena erakargarri egiteko.

3.2. SPRI eta bere taldeko Sozietateen EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2019-2023

3.2.1. Ekintza Plana: SPRI Taldeko erakunde bakoitzeko Euskara Batzordeko kideekin batera, Euskara Planean aurreikusitako ekintza plana aurrera ateratzeko plangintza egitea.

3.2.2. Dinamizazioa: ekintza planean aurreikusitako jardunak antolatu eta aurrera ateratzea, horretarako beharrezkoak diren baliabideak identifikatuz. Aldi berean, ekintza plana aurrera ateratzeak izan ditzakeen oztopoak identifikatu eta konpontzeko proposamenak egitea.

3.2.3. Adierazleak: Plan Estrategikoan jasotako helburuen eta adierazleen jarraipena egitea.

3.2.4. Ebaluazioa: Plan Estrategiko osoaren ebaluazioa egitea, baita sozietate bakoitzaren planaren ebaluazioak ere.

4.- PROPOSAMENAK

Lizitazio honetara (bi loteetara edo bi loteetako batera) aurkezten den enpresak aurkeztuko duen proposamenak honako atal hauek jasoko ditu, hurrenkera honetan:

1) Aurkezpena
2) Egin beharreko lan eta zerbitzuen planteamendua: plegu honen 3.puntuan (3.1. INDEUS eta 3.2. Euskararen Plan Estrategikoa) jasotako edukiei zehatz mehatz erantzungo dien planteamendua behar du izan.
3) Proiektu honetaz arduratuko diren pertsonen zerrenda eta eskarmentua.
4) Erabiliko den metodologia eta kudeaketa, egitasmoari eskainiko zaizkion orduak barne.
5) Euskadiko industria-ehunaren ezagutza eta industria arloan egindako antzerako lanen adibidea.

5.- LANEN JARRAIPENA

SPRI eta enpresa esleipendunari dagokie lanaren jarraipen egokia egiteko pertsonala izendatzea. Jarraipena, lanaren hasieran eta SPRIk eskatutakoaren arabera zehaztuko diren prozedurari eta egutegiari jarraituz egingo da.

6.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

6.1. Kontratu honen xede diren lanak burutzeko, bermatzeko eta haien jarraipena egiteko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko ditu.

6.2. Enpresa esleipendunak egin beharreko lanak egiterakoan erabili beharreko irudi korporatiboak honako hauek izango dira:

6.2.1. INDEUSen kasuan, INDEUSen logotipoa

6.2.2. Plan Estrategikoaren kasuan SPRI Taldearena nagusiki eta beharrezkoa denean Spri Taldea osatzen duten sozietate bakoitzarena.

6.3 Lizitazio honetan jasotzen diren bi arloetako (INDEUS eta Euskararen Plan Estrategikoa) lan-hizkuntza euskara da. Beraz, aurkeztu beharreko proposamenak euskaraz aurkezteaz gain, proiektuan parte hartzeko proposatzen diren pertsonen euskara-mailak oso altua behar du izan, ahoz zein idatziz.